

Azaroak 25: Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna

Aurten, Erizaintza Eskolan **"AFRO"** Gasteizko Afroamerikar Egoiliarren Elkarteari babestea erabaki dugu. Elkarte honek ehunka pertsona eta familia migratzaile laguntzen ditu eta horietako asko egoera sozioekonomiko oso latzetan aurkitzen dira.

Gaur egun, oinarrizko beharrianak asetzeko baliabide nahikorik ez duten amak eta familiak bizi dira Gasteizen gure artean, batzuk jateko ere ez dutenak. "Afro"-n, seme-alabak elikatzeko janaria ezin lortzeagatik etsita dauden amak artatzen dituzte. Hori dela eta, duten premiarik larrienetako bat oinarrizko elikagaien premia dela jakinarazten digute eta Gasteizko ama eta familia migratzaileen artean banatuko diren oinarrizko elikagai hauek biltzea erabaki dugu:

- **Esnea**
- **Galletak**
- **Arroza, Lekaleak, Pasta, Fruitu lehorrak**
- **Olio, Arrain-kontserbak**
- **KONPRESA GINEKOLOGIKOAK:** Hilekoaren pobrezia beste behin ere emakume migratzaileetan areagotu egiten da. Batzuetan, neskatilek eta emakumeek zailtasun handiak izaten dituzte emakumeen higienarako produktuak eskuratzeko oso garestiak direlako.

JOSTAILUAK eta HAURRENTZAKO LIBURUAK ere biltzen ditugu. Familiari artean banatu egingo dira datozen Gabonetan Olentzeroren edota Erregeen opari gisa erabil ditzaten. Mesedez, ematen diren jostailu eta liburuak oso egoera onean eta kalterik gabe egon daitezela eskatzen dizuegu.

- Elikagaiak eta jostailuak Erizaintza Eskolan jasoko dira, azaroaren 18tik 25era arte

“AFRO” ASOCIACIÓN DE RESIDENTES AFROAMERICANOS

1994az geroztik Araban ezarrita dagoen irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Azken helburu gisa, pertsona migratuen eta zailtasun- eta mendetasun-egoeran dauden beste pertsona batzuen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea du helburu.

▪ “AFRO”-k hainbat programa ditu Gasteizen, non boluntario gisa parte har dezakezun:

- Eskola-laguntza haurrekin eta gazteekin
 - Heldu eta adingabe atzerritarren alfabetatzea
 - Itzulpena eta interpretazioa
 - Aisialdiko jarduerak
 - Arropa banatzea
 - Elikagaiak banatzea gizarte-zailtasuneko egoeran dauden familiei
 - Tailer ezberdinen garatzea
 - Gizarteratzen laguntzeko sostengua
 - Hizkuntza-trukea
 - Udalekuak eta aisialdiko jarduerak haurrentzat
- Nahi izanez gero, “Afro”-ren jarduerak sostengatu ditzazkezu honako kontu-zenbaki dohaintza bat eginez: **ES19 2095 3116 0510 9023 9251**



NON GAUDE:
C/Alboka 2·bajo (barrio de Adurza) Vitoria-Gasteiz
afro@asociacionafroamericana.es
616 448 679

